


# IRRRIA

IRRIEN LAGUNAK

MITOLOGIA

ALDIZKARIA



**PUPU ETA LORE**  
Tartalo



**LAGUN**  
Galtzagorriak



**ANIMALIA**  
Mozoloa

110 zk.  
2021ko abendua  
6,20 €



Euskal Herrian asko gara euskararen aldeko konpromisoa dugunok. Gure erronka da herritar guztiok euskara ikastea eta ahalik eta gehien erabiltzea. Horretarako, garrantzitsua da umeez txikitatik lotura estua izatea euskararekin. Etxean euskara jaso dutenak zein kanpoan ikasi dutenak euskaraz entzun nahiko genituzke, berdin-berdin. Hori lortzeko ikasketak euskaraz egitea gomendatzen dugu. Beraz, zuen seme-alabak D ereduan matrikulatzera animatzen zaituztegu.

Eskolako ikasketetan bakarrik ez, garrantzitsua da aisialdian eta gozatzeko espazioetan ere euskarak lekua izatea. Horren adibide bat da esku artean duzuen aldizkari hau. Umeentzat eta gurasoentzat egindako hilabetekaria da, eta proposamen dibertigarriak lantzeaz gain aukera emango digu umeez irakurtzeko zaletasuna hartzeko, balio jakin batzuetan hezteko, euskara hobetzeko, eta askoz gehiagorako.

Gozatu ezazu esku artean duzun aldizkariarekin!!

Somos muchas las personas que en Euskal Herria tenemos un compromiso firme con el euskera. Nuestro reto es que toda la ciudadanía aprendamos la lengua vasca y nos expresemos a través de ella el mayor número de veces posible. En este sentido, es importante que desde los primeros años de la infancia se establezca un vínculo sólido con el euskera. Queremos que tanto las personas que han adquirido el euskera desde casa, como las que no, lo hablen por igual; por eso, recomendamos la enseñanza en esta lengua. Para ello, os animamos a matricular a vuestras hijas e hijos en el modelo D.

Además de en las tareas escolares, también es importante darle un lugar al euskera en los momentos de ocio y disfrute. Esta revista es un ejemplo de ello. Se publica mensualmente y está dirigida tanto a niñas y niños como a sus familias. Aquí, además de propuestas divertidas, encontraremos también actividades donde adquieran el gusto por la lectura, para que crezcan consolidando determinados valores, para reforzar el euskera y otras muchas opciones.

Deseamos que disfrutéis leyendo este ejemplar!



## Aurkibidea

- 4 LAGUN  
Galtzagorriak
- 6 PUPU ETA LORE  
Tartalo
- 8 TIRITATXO  
Bat, bi eta hiru
- 10 MARTINBERTSO  
Mitologia
- 12 HAURRENTZAKO YOGA  
Angeluaren jarrera
- 14 HAUR KANTAK  
Sua
- 16 BARATZE NATURALA  
Galtzagorriak
- 20 EUSKAL HERRIKO ANIMALIAK  
Mozoloa
- 22 PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS  
Mari
- 26 TXOKO TXIKI KUTTUNA  
Nemoria
- 28 MARIKALANBRE  
Marisorginak
- 31 LARGABISTA  
Jentilak datoz!
- 34 MARIMATRAKAK  
Lamia igerilekuan
- 36 MUNDUAK GUZTIONTZAT BEHARKO LUKE  
ARNASA elkarteak



“Basajaunen goseak  
trumoia sortzen du.  
Mariren doministikuak  
dakar euria.  
Ingumarenak xiri-miria.  
Intxixuak sutzen du  
eguzkiaren argia.  
Eta ilargia...  
Tartalok gidatzen du.”

Alaia Martin

**IRRRIA aldizkaria** Irrien Lagunak hilaletaria

110 zenbakia. 2021eko abendua

Argitaratzailea: Irrien Lagunak, SL

Egoitza: Martin Ugalde kultur parkea, Gudarien etorbidea, z/g  
20140 Andoain, Gipuzkoa

Posta elektronikoa: irria@irrienlagunak.eus

Lege Gordailua: SS-1381-2010 / ISSN: 2172-5519

Koordinatzailea: Garazi Urrosolo / Diseinua: Olatz Goikouria

Bezero arreta: (0034) 943 30 43 32

Inprimategia: Leitzaran Grafikak

Zenbaki honetako kolaboratzaileak: Uxue Alberdi, Beñat Gaztelumendi, Miren Amuriza, Oñatiko Natur Eskola, Txakur Gorria, Elhuyar Fundazioa (Ana Galarraga), Amagoia Mujika, Katti Olaizola, Ana Jaka, Xabier Etxeberria, Bikain Diseinu Grafikoa (Cesar Gonzalez, Iñaki Iturriza, Belen Moreno, Julen Tokero), Eider Eibar, Lotura Films (Jose Anjel Lopetegui), Alex Orbe, Joseba Ponce, Ainara Azpiazu, Iosu Mitxelena, Paula Estevez, Alaia Martin, Yoke Ordiziako Yoga klasikoko elkarteak eta Txatxilpuri elkarteak.

Babesleak:

“Hezkuntza, Hizkuntza  
Politika eta Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako  
Sailburuordetzak) diruz  
lagundua



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLITICA LINGÜISTICA



## GALTZAGORRIAK

Testua: Miren Amuriza.  
Marrazkiak: Eider Eibar.




Hau da azkura!  
Orain ere zorriak?



Ez! Handiagoak dira,  
eta bihurriaaaaak!



Inurriak?



Ezta! Izakitxo txundigarriak!  
Mozolo-begiak, azeri-belarriak...



Sorginek igorriak?  
Bai, ba! Galtzagorriak!



# PUPU LORE ETA BIZI-BIZI

## TARTALO

Testua: Uxue Alberdi. Marrazkiak: Julen Tokero, Cesar Gonzalez.



1  
MARRAZKI LEHIAKETA ANTOLATU DUTE ETXEAN.  
TARTALO BAT MARRAZTUKO DUTE ORRI BAKOITZEAN.



2  
PIRRITXEN TARTALINA,  
KOLORETSUA DA ETA PINPIRINA, ARGIZARIZ EGINA.



3  
PUPUREN TARTTALO  
TXUPETEA ETA PARDELA SOINEAN.





# Ticitatxo

Bat, bi eta hiru.  
Mairi, Mairu eta Maru.  
Tartalok begi bat  
eta Galtzagorrik bi belarri.  
Putterrin ezkutatu zaigu  
gaurkoan Mari.  
Gauaren beldur baldin bazara,  
eguzki-loreak egin beza argi.



GALTZAGORRIEK,  
BIHURRI-BIHURRI,  
ERNE DITUZTE BETI  
BI BELARRI.  
ZORROZTU ZUREAK  
ETA JARRI ADI...  
BAIETZ BATEN BAT  
ORRANTZ-ONTZIAN ERORI!



Mitologiako izaki  
ugarik alda dezakete euren  
forma, nahiaren arabera.  
Eta zu, nolakoa zinateke  
kezkoa bazina, adibidez?

GURE ARTEAN ERE BADIRA  
BEGIBAKARRAK, TARTALO  
BEZALA. ETA EUSKARAZ BADUTE  
EUREN IZENA, EZKELA.  
ZEUK PROBA EGIN ETA IKUSIKO  
DUZU ERRAZA EZ DELA.

LAMINEK BEZALA PALMONDO-  
ITXURAKO HANKAK DITUZTENAK  
ERE BADIRA. EZ DIRA OSO  
OHIKOAK, BAINA GURE ARTEAN  
ERE DENETIK DELA ARGI DA.

ETA AMAITZEKO,  
BADAKIZU NOR DEN MAIRI?  
BERE MODUAN, EUSKAL  
HERRIAN BADUGU EMAKUME  
INDARTSU UGARI.  
BEGIRATU INGURURA ETA  
TOPATUKO DITUZU SARRI.



Testua: Beñat Gaztelumendi.  
Marrazkiak: Jose Angel Lopetegi.

## MITOLOGIA

“Izena duena, bada”. Halaxe esaten ziguten gure aitona-amonek. Gaur mendira joan gara, haiek izendatutako pertsonaien bila. Mundua ez baita ikusi eta entzun bakarrik egiten: mundua kontatu egiten da. Ea zer aurkitzen dugun!

Çaltzagorriek hasi  
dute beren jaia;  
lamiak kantu goxoz  
bete du ibaia,  
Mari ahalsua da,  
Basajaun salbaia...  
Lurretik sortutako  
zenbat pertsonaia!



IBAITIK ENTZUTEN DA  
LAMIA KANTARI.



MARTINBER,  
ESNA HADI!



TARTALO BEGIRA DAGO,  
ADI-ADI.



LEIZETIK ATERA  
DA MARI.



PATXI JOAREAK  
EGITEN DA ARI.

# HAURRENTZAKO YOGA

## Angeluaren jarrera

Bizitza angelu edo ertz ezberdinetatik ikusteko gaitasuna landuz gero, errazago egokitu gaitzke egoera desberdinetara.



1 Jarri zutik, oinak hiru esku irekiren neurrira zabalduz, eta mantendu oinak bata bestearen parean. Arnasa sakon hartzen duzun bitartean, bularra ondo zabalduz, bota sorbaldak atzera.

2

Orain beso bat altxatu zuzen belarria ukituz. Mantendu begirada zure aurreko puntu finko batean.



# 3

Arnasa hartuz, tolestu gorputza aldamenera. Altxatuta daukazu besoa mantendu zuzen eta bestea utzi hankatik behera txirristatzen, esfortzurik gabe eta behartu gabe.



# 4

Arnasa botaz itzuli hasierako jarrerara.



*Jarrerera hau 3 aldiz errepika zenezake, bi aldeetara besoak txandakaturik.*

# HAUR KANTAK



Testua: Katxi porreta. Marrazkiak: Joseba Ponce.

## SUA

IRRINTZI ARRANTZA SORGIN DANTZA  
SUARI BEGIRA BIRIBILKETAN.

BIHURTU DIRA  
ERREKAK ARDO  
HARRIAK OGI  
BELARRA ARTO.  
BIHURTU DIRA  
GIZONAK AKER  
ANDREAK OILO  
UMEAK KILKER.


UKENDU, UKENDU  
EMAN ETA KENDU.  
UKENDU, UKENDU  
BADUGU BAGENDU.

BADUGU BAGENDU  
EMAN ETA KENDU.  
BERRIAK SORTU TA  
ZAHARRAK MANTENDU.




# Karakola eta Barea


boratzeko bihurri pareta



GALTZAGORRIAK

Testua eta Marrazkiak: Ainara Azpiazu.





## KARTOIAREKIN SORTU koloretako dominoa

Etxe giroan sortzeko proposamena egin nahi dizuegu gaurkoan. Asteazken zehar pilatzen eta zaborretara botatzen dugun paper eta kartoen artean aukeraketa egin, txukun dagoena aukeratu eta ea zer sortzen duzuen! Material bikaina da edozer sortzeko: hartza, ordenagailua, argazki galeria... Gaurkoan, baina, eskulan simple eta erraz bat aurkeztea erabaki dugu, kartoi pusketekin egindako dominoa.

### ERABILITAKO MATERIALA:


Kartoiak, margoak, guraizeak...



1 Aukeratu kartoi egokia eta 25 zati moztu, ahalik eta berdinenak.



2 5 irudi simple asmatu ditugu: karratua, borobila, ur tanta, izarra eta hutsa.



3 Denon artean sortu ditugu pieza eta marrazkiak.



4 Betiko dominoaren arauekin jolastea besterik ez zaigu gelditzen.

# iRRiA

ALDIZKARIA

Irakurzaletasuna hartzaroan sortzen den ohitura da. Haurrak garela hasten gara irakurketan plazerra topatzen eta horrek eskaintzen dizkigun abenturetan murgiltzen. Baina, guztia bezala, irakurketaz gozatzea ere ikasi egiten den zerbait da. Horregatik, ezinbestekoa da helduok, haurrik txikienei ere, intereseko irakurgaiak eskaini eta irakurri diezazkiegun; eta horretarako jaio zen iRRiA aldizkaria.

iRRiA aldizkaria balio aurrerakoiak sustatzeko tresna da. Euskal gizartearen egungo errealitatetik abiatuta, haurrei eredu berriak eskaintzea da gure helburua. Horregatik, hausnarketa prozesu baten emaitza diren eduki propioak islatzen ditugu hilerok.

Gainera, euskaratik eta euskaraz ekoizten den aldizkari bakarra da hau, haurrei aisialdian euskaraz gozatzeko lagunduko diena.

**ABENTURAK BIZITZEKO PREST? GOZATU IRRiA!**



# MOZOLOA

## *Athene noctua*

Tamaina txikiko gaueko hegazti harraparia: 22 cm luze da eta 160 g pisatzen du. Buru borobil eta handia du, begi handi eta hori deigarriekin. Lumajea marroia du, orban zuriekin.

### NON BIZI DA?

Europatik Txinaraino aurkitzen da eta gune irekiak ditu gogoko, landa eremuak eta larreak adibidez, betiere habia egiteko zuhaitz edo harkaiztiren bat badu. Herri barruko parkeetan ere bizi daiteke.

### NOIZ IRTETEN DA?

Hontz gehienak gautarrak diren arren, mozoloa ilunabarrean egoten da aktiboen. Egunez eta gauez ere ikus daiteke, baina orokorrean zuloren baten gordeta igarotzen ditu momentu horiek.

Zozoaren neurrikoa da, baina hontz txikiagoak ere badira: tengmalm hontza, apo-hontza eta mozolo txikia.

Bikotea osatu ondoren arra eta emea elkarrekin bizi dira bietako bat hil artean.



Bere kantua oso altua da eta batzuetan katu batekin nahastu daiteke.



# Euskal Herriko animaliak

## ZER JATEN DU?

Haragijalea da. Bere harrapakin ohikoenak zomorroak, zizareak eta ornodun txikiak izaten dira. Zuhaitzetako adar edo posteen puntan egoten da harrapakina noiz iritsiko zain. Batzuetan lurrera jaisten da zizare eta zomorroak bilatzeko.

## NOLA UGALTZEN DA?

Urte osoan kantuan egiten duen arren, ugalketa garaia hurbiltzen denean gehiago kantatzen du. Emeak 2-5 arrautza erruten ditu eta arraren laguntzarik gabe berotzen ditu, txitei jaten, berriz, biek ematen diete.

Euskaraz, mozolo hitzak pertsonari zuzenduta inozo esan nahi du.



# Pirritx, Porrotx eta Mari Motots

## MARI

Testua: Txakur Gorria. Marrazkiak: Julen Tokero, Cesar Gonzalez.



BATOLA,  
BALZOLA...

BANEKIEN, BAI, HONI  
ERE IZENA ALDATUKO  
ZENIOLA...

Pirritx, Porrotx eta Marimotots poz-oz daude. Biharkoa egun berezia izango da; txangoa daukate eskolakoekin. Baltzolako kobak ezagutzera joatekoak dira. Egun osoa igaro dute aztoratuta, eta lotarako ordua iritsi denean ere, urduritasuna nabari da logelako airean. Beti gertatu ohi zaie antzera biharamunean zerbait berezia daukatenetan.

–Aizue! Non daude zehazki Batolako kobak?  
–galdetu du Marimototsek.

–Batolako kobak, Marimo? Beti aldatzen dizkiezu izenak pertsonei eta lekuei! –erantzun dio Pirritxek barrezka.

–Baltzolakoak! –zuzendu du Porrotxek.

Pirritxek begi keinua egin dio lagunari eta azalpenarekin jarraitzea erabaki du:

–Baltzolako kobak Diman daude.

–Diman? –galdetu du Porrotxek orduan.

–Diman, bai. –Pirritxek.

–Nafarroan orduan, ezta? –berriro Porrotxek.

–Dima Nafarroan? Bai, zera! Orain ulertzen dut zergatik ez dituzun sekula "Egunean Behin"–eko galderak asmatzen... –sartu da Marimotots ere elkarrizketan.

–Dima Bizkaian dago, Porrotx. Arratia izeneko haranean. Inguru eder-ederra da... Ikusiko duzu...  
–jarraitu du Pirritxek.

–Tira, tira... Ez zen horrenbesterako. Bizkaian, Nafarroan... Ez nenbilen hain urruti...

Porrotxek aurrez egindako hanka sartzea konpondu nahi izan du azken hitz hauekin. Lagunaren geografiarako dohaiekin txundituta, algaraka hasi dira Pirritx eta Marimotots.

Pirritxek eta Marimototsek minutu luzeak igaro dituzte barre eta barre, gelditu ezinik. Azkenik, baina, lortu dute pixkanaka baretzea. Porrotx harrituta dago bi lagunei begira, ez zuen uste hain barregarria izan zitekeen ezer bota zuenik...

– Nahikoa barre egin duzue eta ea... Orain, benetan, zer uste duzue topatuko dugula bihar Baltzolako kobetan?

– Auskalo! Saguzarrak agian? – erantzun dio Marimototsek.

– Eta estalaktitak, eta estalagmitak... – jarraitu du Pirritxek.

– Baina dena ilun–ilun badago ezingo dugu leizeak zer sakonera duen argi bereizi, ezta? – galdetu du Porrotxek kezkatuta.

– Egia... – eman dio arrazoia Marimototsek.

– Nik badaukat trikimailu bat horretarako... – aipatu du jarraian Pirritxek.

– Sakonera neurtzeko? – baieztatu nahi izan du Porrotxek.

– Bai. Harri bat botako dugu zulo barnera, eta isil–isilik egongo gara harri hori lurrera edo hormara iritsi arte. Soinuari esker jakingo dugu gutxi gorabehera zein sakonera duen... Denbora tarte handia igarotzen bada guk harria jaurtitzen dugunetik soinua entzun arte, urruti dagoen seinale...

– Aupa, Pirritx! Ideia bikaina iruditzen zait!

Marimotots, aldiz, pentsakor geratuko da; bere baitara bilduta bezala.





Pirritx, Porrotx eta Marimototsek lortu dute pixkanaka urduritasunak baretzea eta betalazak gero eta astunago sumatzen dituzte. Azkenerako, hizketaldia eten eta lozorrotu egin dira guztiz. Pirritx izan da lokartzen lehenengoa eta handik gutxira Porrotxen zurrungak lotu zaizkie berarenei. Marimototsi pixka bat gehiago kosta zaio lokartzea. Badirudi zerbait daukala buru barruan buelta eta buelta... Azkenik, baina, loak hartu du bera ere.

Behin lokartutakoan, ametsen mundura bidaiatu du Marimototsek. Leize sakon baten aurrean dago orain. Sugar moduko batzuk datoz leizearen barrualdetik, eta ahots ezezagun eta ozen bat ere iristen zaio belarrietara.

–Ez bota harriak kobazuloen barrenera! Ez bota harriak!

Marimotots izutu egin da eta bi hankak dardarka jarri zaizkio bat–batean. Ahotsa isiltzen ez zenez, nor ote den galdetzea pentsatu du.

–Ados. Lasai egon. Ez dugu harririk botako kobetara... Baina... Nor zara zu?

–Mari naiz!

–Anbotoko Mari? –erantzun dio Marimototsek harrিতa.

–Bai. Anbotokoa, Txindokikoa, Aizkorrikoa... Nonahikoa eta noranahikoa. Leizeetan hartzen dut atsedean beste sorginekin, lamiakin eta iratxoekin batera... Eta harriak jaurti eta esnatzen bagaituzue... Haserre bizian jarriko garela abisatzeko etorri naiz zuregana.

–Ez, lasai. Esango diet nire lagunei zuek barruan zaudetela eta bakean utziko zaituztegu, lasai.

–Eskerrik asko! Zein da zure izena?

–Ni ere Mari naiz, zu bezala... Marimotots.

–Urte askotarako Marimotots. Askok pozten naiz zu ezagutu izanaz.

Leize barruko sugarrak eta ahotsa desagertu dira..

Marimotots nahasita esnatu da. Nagiak atera, begiak zabaldu eta gauean zehar bizitakoak etorri zaizkio burura. Logelako leihoa ireki duenean haize ufada bat sartu da barruraino. Marimototsek berehala antzeman du seinale bat izan zitekeela.

–Egun on, lagunak! Zer moduz egin duzue lo?

–Egun on, bai... –erantzun dio Pirritxek oraindik begiak zabaldu ezinda.

–Egun on... Zergatik esnatu zara hainbeste energiarekin, Marimo? –Porrotxek.

–Gaurko gaua liluragarria izan da. Ezetz asmatu nork bisitatu nauen ametsetan?

–Nork? –galdetu dio Porrotxek gogo gehiegirik gabe.

–Olatz Salvadorrek? Maialen Lujanbiok? Eneko Sagardoyk? –Pirritxek, esnatuxeago.

–Ez, ez eta ez! Kobazulo baten sarreran nengoen eta... Mari agertu zait.

–Entzun zaitut, bai, gauerdian Mariri deika, oihuka aritu zara. Oraintxe gogoratu naiz... –aipatu dio Pirritxek jarraian.

–Eta zer esan dizu ba Marik? –galdetu dio Porrotxek oraindik ohetik altxatu ezinik.

–Leizeetara harririk ez jaurtitzeko eskatu dit. Bertan hartzen omen dute atsedean sorginek, lamiek, iratxoek eta bestelako izaki mitologikoek... Bertan egiten omen dute lo, eta harriren batek esnatuz gero, ez omen dira oso esnaera onekoak... –azaldu du Marimototsek.

–Hara! Ni ere izaki mitologiko bat izango naiz orduan... –erantzun du Porrotxek irriz.

Bi lagunek ere barrezka erantzun diote lagunaren ateraldiari. Ohetik altxatu eta txangorako motxilak prestatzen hasi dira pixkanaka. Gauza bat behintzat argi dute gaurkoan; inork ez du harririk jaurtiko leizearen barrunbeetara.



# TXOKO TXIKI KUTTUNA

Testua: Alaia Martin. Marrazkiak: Eider Eibar.

## **ZEKALE ETA MITOLO**

Okindegian Mitolo ogia eskatu  
dut eta atzoko ogia eman didate!



## NEMORIA

Arrainek memoria txarra dute.  
Lamia arraina omen zen berez,  
baina pertsona izan nahi zuen.  
Arraina zela ahaztu zitzaion...  
Orain ahatea da batzuetan,  
arraina bestetan,  
pertsona tarteka...  
Beti dabil aldakor, beti kantari...  
Ametsak orraztea gustatzen zaio lamiari.

## EGURALDIA

Basajaunen goseak trumoia sortzen du.  
Mariren doministikuak dakar euria.  
Ingumarenak xiri-miria.  
Intxixuak sutzen du eguzkiaren argia.  
Eta ilargia... Tartalok gidatzen du.



# Marikalanbre

MARISORGINAK



Testua: Ana Galarraga, Elhuyar Fundazioa. Marrazkiak: Jose Angel Lopetegui.

**M**arikalanbre pozik dago. Esperimentuak egiten aritu dira, eta ezusteko bat baino gehiago izan dituzte.

Zergatiak ikertzen ari dira orain. Bururatu zaizkien hipotesiak Amona Txinpartari kontatzeko gogoz iritsi da etxera. Barrez hartu du amonak:

- Zuek zarete, zuek, marisorginak!
- Ez esan hori, amona! –eskatu dio, haserretuta, Marikalanbrek.



–Ez haserretu, sorgin txiki. Ez pentsa sorginak ipuin batzuetan agertzen diren izaki gaizto eta itsusi horiek direnik. Sorginak emakume jakintsuak ziren –erantzun dio amonak. Amonak azaldu dio emakume haiek adituak zirela osasungintzan eta ingurumenaren zaintzan.



–Inork baino hobeto ezagutzen zituzten sendabelarrak. Ukenduak eta edabe sendagarriak prestatzen zekiten, eta erditzen eta jaioberririk zaintzen laguntzen zieten emakume gazteei. Ilargiaren eta Eguzkiaren gorabehera guztiak iragartzen zituzten, baita eguraldia ere. Horren arabera antolatzen zituzten egitekoak, uzta ona izateko eta gaitzei aurre hartzeko...




Marikalanbrek algaraka eten du amonaren azalpena:

–Amona, orduan, zu egiazko sorgina zara!  
Biak egin dute barre, sorgin alaien modura.









Testua: Ana Jaka. Marrazkiak: Iosu Mitxelena.

## LAMIA IGERILEKUAN

**M**arimatrakak eta gelakideak igerilekura joan dira. Monitorea igeri teknikak irakasten dsaiatzen den bitartean, Noak eta Leak uretan behin eta berriro pulunpatzen dihardute, besteak zipriztinduz. Hasieran dibertigarria zen, baina lagunak nekatu egin dira. Zer esanik ez monitorea! Marimatrakak atzean utzita, igerian urrutiratu dira ikaskideak.

Noak igeri egiteari ekin dio, harrapatu nahian. Leak, aldiz, kanpotik egin du korrika, agudoago helduko delakoan. Omar da igeri egiten azkarrena. Harrigarria da hartu duen abiadura.

Arraina ematen du!

–Omarrek hegatsak ditu! –oihu egin du Yuk.

Hegatsak? Leak ezin du sinetsi. Omarrek oinak ditu!

Dakizenez, ez da komeni igerilekuan korrika ibiltzea. Zorua labainkorra da, are gehiago bi neska bihurrik urez zipriztindu ondoren. Lea irristatu eta, ipurdiarekin lehenengo eta buruarekin gero, lurra jo du.





Bere onera etorri denean, gelakideen oinak ikusi ditu bere inguruan eta, haien artean, hegats pare bat. Igeriketa-hegatsak dira, baina Learen irudimenean lamia batenak dira. Begiak jaso eta Omar ikusi du, txanoa kenduta. Kizkurrak bustita, luze luzea du adatsa.

–Omar, lamia zara!!

Lagunek barre egin dute.

–Tranpati bat da Omar! –bota du Yuk.

Monitoreak ez haserretzeko esan dio, eta igerian ikastera etorri direla, ez lasterketak egitera. Nahi duenak igeriketa-hegatsak erabil ditzake.

Lea, orduan, bere nahasmenaz ohartu da eta, lotsatuta, Omarri begiratu dio.

Baina Omarrek irribarre zabala dauka aurpegian. Lamiak izugarri gustatzen zaizkio, eta sekulako poza eman dio Leak lamiatzat hartzeak.

Bueltako autobusean, Omarrek lamien ipuinak kontatu dizkie Noa eta Leari. Haiek bezain ederra izan nahiko luke.

–Oso ederra zara! –esan dio Leak.

Noak motxilatik orrazia atera eta Omarri eman dio.

–Lamia izateko, hau bakarrik duzu faltan.

Orrazia arrunt-arrunta da, baina Omarri urrezkoa dela iruditu zaio, lamiek dituztenen antzekoa.



# MUNDUAK GUZTIONTZAT BEHARKO LUKE

## ARNASA ELKARTEA

Ostirala iritsi da. Asteburuan atsedena hartzeko eta planak egiteko aukera izango da. Baina eskolako etxeko lanak egiteko tarte ere hartu beharko da.



BIZIPOZA

elkarlanean

Gogoratu asteburuan idazlan txiki bat egin behar duzuela. Gaia: Ametsak.

Espero dut ametsen bat egitea, bestela...

Nik garbi daukat zein den nire ametsa, egunero.



Eta zein da egunero amesten duzun hori?

Behingoz kaftria hartzeko aukera dudala.







Agur, bai. Nik lehendabizi nire eguneroko etxeko lanak egin behar ditut; makinarekin tratamendua, fisioterapia saioa... eta gero, idazlana.

Bihar arte, Uxue. Etxera noa etxeko lanak egitera.



## ARNASA ELKARTEA

'Muxu gazia' izenez ere ezagutzen da Fibrosi Kistikoa. Gaixotasun genetiko larri bat da, eta arnasketa eta digestio aparatuan eragiten du, bereziki. Jaioberriei egiten zaien orpoaren probarekin atzeman daiteke.

Ez da oso gaitz ohikoa: 5.000 jaiotzetatik bakarrik baina ez du izaten; horregatik, gaixotasun arrarotzat dute adituek. Gaixotasun larri hori duten lagunei eta euren senideei laguntzeko helburuarekin sortu zen Gipuzkoako Fibrosi Kistikoaren Elkarte.



Informazioa emateaz gain, bestelako zerbitzuak ere eskaintzen ditu elkarteak: arnas fisioterapia; entrenatzaile baten eskutik, gaixoaren egoera fisikoa mantendu eta hobetzeko zerbitzua eta arreta psikologikoa, besteren artean.



[www.fqeuskadi.org](http://www.fqeuskadi.org)

TXARA 1, 15B lokala. Zarategi pasealekua 100  
Telefonoa: 610793748 - [fqeuskadi@gmail.com](mailto:fqeuskadi@gmail.com)

# EGIN HARPIDETZA!

## ETA JASO DVDa EDO IPUINA OPARI!

Baliatu gure eskaintza berezia eta jaso urtean iRRiAren 10 ale etxean!!



www.irrienlagunak.eus



### Irria aldizkaria ezagutu nahi duzu eta oraindik ez zara harpide?

Bete [www.irrienlagunak.eus](http://www.irrienlagunak.eus) webgunean topatuko duzun formularioa eta azken bi aleak jasoko dituzu deskargatzeko moduan.

HARPIDETZA EGITEKO AUKERAK:

Telefonoz: 943 30 43 32 zenbakira deituz

E-posta: [harpidetza@irrienlagunak.eus](mailto:harpidetza@irrienlagunak.eus) helbidera idatziz.

[www.irrienlagunak.eus/harpidetza-n](http://www.irrienlagunak.eus/harpidetza-n) izena emanaz.